

Santi Leone

Jaime Ignacio

P

olitikatik erretiratu egin da, baina ez da joan. Gurekin gelditu da. Duela guti, telebistan, bere ahalmen intelektualaren gailurrean sentitzen dela erran zuen.

Izan ere, diputatu izateari uztearekin batera, bi liburu utzi dizkigu. Ez berak arruntean idatziak, baina bi hala ere. Bataren kasuan, frankista baten memoriari paratutako hitzaurre luzea da (ehun orri baino gehiagokoa); bertzearenean, zenbait historiarik egindako eta berak koordinatutako artikulu bilduma dugu. Bigarren liburu horren aurkezpena, Jose Maria Aznar Espainiako presidente ohiak berak egin zuen, urtarrilaren 14an, Iruñean. Jakina, Jaime Ignacio del Burgoz ari naiz. Politika utzi du. Hau da, Parlamentuan egiten den politika, arestian aipaturiko liburuok iragartzten baitute zein izan den hemendik aitzina haren zeregin nagusia. Galdu egin dugu, beraz, Jaime Ignacio diputatua, baina Jaime Ignacio historialari eta intelektuala atxiki dugu. Pozten ahal gara, zinez, ez baitira anitz Nafarroako errealitatea berak bezain ongi aztertzen eta salatzen jakin izan dutenak. Horretaz ohartzeko, zuzeneko iragarpenez eta analisi sakonez beteriko ibilbidea gogoratu bertzerik ez da.

Oraintsuko adibide bat eskaintzearen, 2007ko hauteskundeak baino lehen liburu batean salatu zuena: *Nafarroa, traizioaren prezioa*. Sozialistak Nafarroa saldu nahian zebiltzala gaztigatu zigun, eta ezin ukatu bete-betean asmatu zuela.

Jaime Ignaciok behin baino gehiagotan historiaren faltsutzaileak salatu ditu. Eta, berriro ere, arrazoia eman behar zaio, nahitaez. 80ko hamarkadan, Mari Cruz Mina historialariarekin izan zuen kalapitan, hark dokumentu bateko testua (hizki bat, hain zuzen ere) aldatu izana leporatu zion, bere tesiak berretsi ahal izateko. Eztabaida prentsara ere ailegatu zen. Erran nahi baita, Del Burgoren erantzuna *Diario de Navarra*ren orrietara iritsi zen, Minak berea, egunkariko atek hetsirik, IPEseko aldizkarian argitaratu behar izan zuelarik. Ez da kasu bakarra Del Burgoren



MIKEL SAINZ

bibliografian. Nik neuk egiaztatu dut nola, Nafarroaren ustezko espainiartasuna frogatu nahian, 1940ko hamarkadako testu bat XIII. mendekoa balitz bezala saldu duen, eta halaber nola, bertze testu bateko “kristautasun” hitza “hispanitate” bihurtu zen Del Burgok ekarritako aipuan.

Jaime Ignaciok ez du ahoan bilorik izan euskararen politizazioa seinaltatzeko orduan. Eta ederki egin du. Zeren, gure Nafarroa honetan, zerk esplikatzten du, politizazioa ez bada, Pegenaute bezalako bat hizkuntza politikaren arduradun nagusia izan izana? Zein izan zen, politizaziotik aparte, Victor Manuel Arbeloa bezalako bati euskararen inguruko liburuxka bat idazteko enkargua eman izanaren arrazoa? Nola ulertu, bertzenaz, euskara batuarenganako herra itsua eta nafar euskalkienganako (ustezko) maitasun sutsua, ez euskara baturik ez euskalkirik ez dakitenen aldetik?

Del Burgo historiaren manipulazioaz mintzatu zaigu, ongi mintzatu ere, baina horretan ez zaio meritu handirik aitortu behar, naski etxetik ikasita zekarren kontua baita hori. Edonola ere, arrazoa du berriz, Nafarroan historia manipulatu egiten da. Errate baterako, hasieran aipaturiko liburu batean, Del Burgok koordinatutako hartan, historialari batek Erdi Aroan nafarren betiereko hiru ezaugarriak kausitu ditu: foruzaletasuna, paktuak egiteko joera, hispanitatea.

Zaila da esentzialismoaren eta historia teleologikoaren adibide argiagorik aurkitzea. Izan ere, irudimenari eragiteko tenorean, Jaime Ignacio bera ere ez da makala eta euskaldunen zenbait praktika gaixtoren berri eman dio munduari: ikastoletan espainolari “erdara” deitzen diote eta, are gehiago, gure lur honetan batuaren arrotzasunaren erakusgarri, “Nafarroa” hitza, Herri Bataunak asmatutako neologismo itsusia, erabiltzen dute. Argi dago, gure politiko ohia- ren liburuak irakurtzen segitu beharko dugu. Bertzerik ez bada, gutxienez salaketen bidez egiten ari den autoerreturatu hori nola gelditzen den jakiteko. ■

Nik neuk egiaztatu dut nola,
Nafarroaren ustezko espainiartasuna
frogatu nahian, 1940ko hamarkadako
testu bat XIII. mendekoa balitz bezala
saldu duen, eta nola, bertze testu bateko
‘kristautasun’ hitza ‘hispanitate’ bihurtu
zen Del Burgok ekarritako aipuan